



LIBURUA

Bizitza hezur mordo astuna da, darling



HEZURREN ERRETURA MIREN AGUR MEABE

SUSA, 2019

AMAIA ALVAREZ URIA

San Juan bezperan idazten ari naiz kritika hau, zaharra erre eta berriari ongi etorria egiten zaion egunean. Garai ezin hobea Miren Agur Meaberen azken lana irakurtzeko. Lan hau "arazketa errituala" dela dio une batean protagonistak. Izenburuari buruz hurrengo dio: "Oraindik ez neukan izenbururik, baina intuizioak hezurak iradokitzen zizkidan: sinbolo horrek batasuna eman ziezaiokeen nire lanari, azalean hasi, eskuetatik jarraitu, begian geldiunea egin eta gorputzaren barrenengoetara jo gurako lukeen miaketan. Idazketa prozesuari begiratzean ordea: Liburu hau burutzea gurpil hits eta sorgogarri batetik askatzeko ekintza bat izan da niretzat".

Mosaikoak osatzen dituzten harri txoak dira narrazio hauetako baten izen-

burua: Teselak. Baita liburu honen egitura deskribatzeko irudia ere. Narrazioa da, joan-etorriko loturez jositako ipuin sarea edo nobela fragmentatua; fikzioa, termino *angloa* erabiltzekotan; autofikzioa gertaerak eta pertsonaiak errealtatean jaio eta fikzioan gorputzu dituela kontuan izanik. Hori baino gehiago egiturari begira kontaktarekin batera gutunak, poesia, egunerokoa, testamentua, ametsen bilduma, eta flora eta faunaren seinaleak.

Hizkuntzari dagokionez, aurreko lanetan bezain mamitsu agertzen zaigu euskara. Eta ez dator bakarrik, latina, ingelesa, frantsesa, italiara eta gaztelania-tik hartutako espresio zenbait topatuko ditugu tarteka: *La recherche de l'absolu*, *Gratis et amore*, *Daily program*...

Protagonistak ordura arte bizitakoari egiten dio erreposoa eta bakardadea, desosegua, konponketak agertuko zaizkigu parean. Baina bidelagunak ere hor egongo dira, arrimuan: Rosalia de Castro, Colette, Virginia Woolf; senideak eta hildakoak, Nadine eta beste "ahizpa" batzuk; maitale-edo izandako O. eta Z.; edo idazletzan gurutzatutako han eta hemengo literaturgileak.

Euri lainoak eta itoginak izango dira agertokian, lorategi, baso eta zuhaitzek ere presentzia izango dute. "Atzoko neska eta gaurko andrea" ezagutuko ditugu orriotan, zorrak kitatzen jardungo du, doluan, idatziz, iraganetik orainera, gerorako bideari garbi eta gogoz ekiteko. Izan ere: "Bizitzaren ederra galgunetik aldentzeko jartzen digun ariketa da". ●